



HEZKUNTZA PROIEKTUA 2009

1. Aurkezpena

1.1. Zer da IHPa?

Mariaren Bihotza Ikastolako Hezkuntza Proiektu honek gure hezkuntzaren ildo nagusiak garatu nahi ditu. Titularitate bereko ikastetxe guztietarako den Claretiar ikastetxeetako idearioaren zehaztapen bat izanik; baina, aldi berean, ikasturtero egiten den Ikastolako Urteko Plana baino zabalagoa dena, eta HIParen zehaztapena izanez.

1.2. Nor gara?

Euskal Herriko Claretiarren Kristau ikastola bat gara; Donostiako Gros auzoan finkaturik eta gure gizarteari hezkuntza zerbitzu bat eskeini nahi diogu. Irakaskuntza euskaraz egiten da (D eredu dugu).

Hezkuntza komunitatea, Ikasle, Guraso, Irakasle, Zerbitzuetako langileria eta Entitate Titularrak osatzen dute

1.3. Mariaren Bihotzako historia

"Corazón de María" ikastexea 1927ko urriaren 3an zabaldu zen. Lehenik, hau da 1920tik Donostiako Alde Zaharreko "Campanario" kalean euskal ikastetxe batetako arduradunak izan ziren. 1974. urtean heziketa misto eta euskaldun bateko ikastexea batean bihurtu zen, gaur egun den bezala.

1.4. Nolakoak gara? (Ikastolako ezaugarriak):

Euskal Autonomi Erkidegoko itunpeko hezkuntza-sareko partaide gara. Haur Hezkuntzako 1. zikloko azken urtetik 2. ziklo osoa, hau da 4 urte, Lehen Hezkuntzako 6 urteak eta DBHko 4 urteak ditugu.

Haur Hezkuntzan Psikomotrizitate gela bat dugu, gimnasio, patio itxia, jangela, antzokia, arreta berezia behar dutenentzat gela, liburutegia, otoiztegiak, ordenagailu gelak, ... Honi guztiari irakasle gelak, bulego desberdinak, idazkaritza, eta abar.

"Kristau Eskola" erakundearen barnean gaude, EIB (Eusko Ikastolen Batza) barruan ere, eta hiri eta probintziako beste ikastetxe batzuekin harremanak ditugun bezala, EAEko Hezkuntza Ikuskaritzarekin ere. Beraz EAEko hezkuntzari buruzko arauen menpe gaude. Entitate Titular beraren ardurapean dauden beste bi ikastetxeekin (Leioa eta Iruña) ere koordinaturik gaude.



1.5. Ekonomia, kultura eta gizarte ingurua.

Bere historiako garai luzeenean bi linea eta 600 bat ikasle izan zituen. Gaur egun linea bakarra eta 300 ikasle gutxi gora behera ditu.

Ikastetxe herrikoia izan da eta izen bereko parrokiarekin batera auzoan ekintza desberdin ugari garatu ditu. Auzoan inplikaturik egon den ikastetxea izan da.

1.6. Non gaude?

Gure ikasleriaren erdia gutxi gorabehera inguruko auzokoak dira, beste horrenbestekoa auzokoak; gutxi batzuk dira beste auzoetakoak.

Gurasoen artean, %50ak erdi mailako ikasketak ditu, %25ak oinarrizko ikasketak eta beste %25ak goi mailakoak. Ikasleriaren %30ak laguntza publikoa jasotzen du. Erdi mailako gizarte taldea.

Guraso gehienek ez dute euskara maila egokia, hizkuntza honetan beraien seme-alabak hezteko.

2. Ikastetxeko izaera

2.1. "Eginkizuna"

Donostiako Mariaren Bihotza ikastola kristau ikastola klaretiarra da. Gure hezkuntza jardueraren giltzarriak Ebanjelioko baloreak eta gure herriaren aldeko zerbitzua dira, euskal kultura, jarduera guztiak euskaraz eskainiaz eta maitasunean zerbitzatzeko jarrera bultzatuz.

Gure helburu nagusiak ikasleen garapena eta heziketa integrala dira. Bi urterekin hasi eta Derrigorrezko Hezkuntza amaitu arte, ikasleak askeak izan daitezten lortu nahi da, besteekin eta besteentzat, ebangelioaren baloreetatik, bizitzako erronkei eta gizarteari erantzun pertsonala ematen jakin dezan ikasleen gaitasuna ahalbideratuz.

Gure formakuntzaren oinarriak ikaslearekiko askatasuna eta errespetua dira. Hau guztia gauzatzeko lan talde motibatu eta formatu bat dago, familiekin elkarlanean diharduena, giro atsegina, hurbil eta konfiantzazkoa sortuz, hezkuntza pertsonalizatua lortu nahian.

2.2. "Ikuskera"

- ~ Eginkizunean jasotako eta eginiko hezkuntza eskaintza bideratu etengabeko hobekuntza bilatzen duen kudeaketa eredu aplikatuz eta gure eginkizuna kalitatez burutzeko behar ditugun baliabideak erabiliz.
- ~ Harreman aberats eta hurbilak dituen ikastola izan; bertan kide guztiak hezkuntza jardueraren orientazio eta kudeaketan elkarlanean ariko dira.
- ~ Familiekin bat ariko da lanean, familia baita seme-alaben hezkuntzaren arduradun nagusia.
- ~ Lan talde kualifikatu, ilusionatu eta formatu bat sortu, momentuko erronkei aurre egin, gertaerak aurreikusi eta, etengabe egokitu eta birziklatuz ariko dena.



- ~ Ikasleei arreta pertsonalizatua eman.
- ~ Jakintza berriekin, (hara nola, teknologia ala irakurketa sistema berriak: ikus-entzunezko eta informatikoa), konprometitua dagoen eskola.
- ~ Fede hezkuntzan eta kristau baloretan zentratua.
- ~ Ikastola solidarioa, behartsuekin ardua azaltzen duena.

2.3. "Baloreak"

- ~ Profesionaltasuna : bere egitekoa gaitasun nabarmenez eta gogoz betetzen duten pertsonak.
- ~ Ardua: kontu eta arreta bereziaz jokatzeko dute egin, esan edo erabakitzen duten orotan.
- ~ Errespetua: begiramenez, arretaz eta gizalegez jokatzeko dute.
- ~ Jakin-nahia: hezkuntza erronka berrien aurrean irekiak eta gogotsuak.
- ~ Gizatasuna: lagun-hurkoarenganako sentiberatasun handiz.
- ~ Esku hartzea / inplikazioa: helburu bera lortzeko elkarri lagundu eta parte hartzeko prest, ardurak bereganatuz.
- ~ Taldean aritu: gainontzekoekin koordinatuz bere lana bete eta ardurak onartzen dituzte.
- ~ Ebangelioaren baloreak ikastolako dimentsio guztietan isladatzen dira.

3. Izaeraren ezaugarriak

Gure nortasunaren ezaugarriak hiru ardatzen inguruan egituratzen dira.

3.1. Banakako profila:

- Pertsona guztiok berez dugun askatasun pertsonala; egia bilatzeko bidean norbere buruaren jabe izateko kontzientzia morala eta nor bere erabakiak hartzeko autonomia sendotzen du.
- Afektibitatea, auto-estima, maitasuna eta adiskidetasuna eta sexualitatea, pertsonaren balore guztietan integratuta, komunikazio harremanetan eta pertsonen arteko elkarbizitzan.
- Borondatea, auto-diziplina, ahalegina, lanarekiko maitasuna, irmotasuna, hobetzeko grina.
- Jakituria, ezaguera, kultura. Tekniken eta lan intelektualerako ohituren jabe egin. Informazioaren hausnarketa kritikoa. Arlo guztietan formatzeko kezka: akademikoa, kulturala, erlijiosoa, morala, soziala...

3.2. Profil soziala:

- Gizaki guztien zentzu positiboa eta bizitzeko eskubidearen defentsa.
- Familia, maitasun elkarte eta pertsonen formazioa areagotzeko gune gisa, eta arlo guztietan funtsezko baloreak garatzen diren gune modura.



- Lagun hurkoa onartu eta errespetatu, ideologia, interes eta uste sendo guztien gainera. Elkarriketa, barkatzen jakitea, guztienganako maitasuna, baita etsaiarenganako ere; karitatea, miseriakordia eta errukitasuna.
- Bakea eta indarkeria eza, bai jarrera pertsonalean, bai konpromiso sozialean ere.
- Ondasunen zentzu soziala eta gutxiago dutenekin edo ezer ez dutenekin konpartitzeko arduraren kontzientzia. Justizia eta elkartasuna behartsuenganako, marjinatuenganako eta baztertuenganako, batez ere beharrak dituzten herrienganako eta emigranteenganako.
- Konpromiso soziala eta partehartze arduratsua gizartearen egunerokotasunean, bai boluntario trukean ezer jaso gabe, bai laguntza desinteresatua; hau da, beti ere guztion onerako lan egin, norberaren interesen gainera.
- Arraza, kultura, politika eta erlijio aniztasuna onartu, pertsonen onerako eta beren duintasunerako baloreetan; ausardia gure gizarte demokratiko honetan nor bere ideiak, uste sendoak eta baloreak aitortzeko, eta horiekin guztiekin bizitzan aurrera egiteko.
- Natura errespetatu eta ingurumena zaindu.
- Nork bere herria maitatu eta haren alde lan egin, eta bertako kultura eta hizkuntzarekin konpromisoa izan.
- Aisialdiko eta kirola egiteko denbora erabili lagun arteko harremanetarako, bizikidetzarako, formazio sozialerako eta pertsonalerako.

3.3. Transzendentziaren profila:

- Zoriontasunen gizarte berria, gaur egungo alternatiba historikoa.
- Kristau elkarteak, toki egokia fedea aurkitzeko, areagotzeko, lantzeko eta Elizan erabat sartzeko; hori baita kristau bizitzan elkarbizitza heldutasunean bizitzeko modua.
- Gure fundatzaileen espiritu ebanjelizatzailea eta misiolaria, Jainkoaren ebanjelioa pertsona guztiegana helarazteko, eta, batez ere, urrunen daudenengana eta ahulenengana iritsi ahal izateko.

4. Ikastetxeko helburuak

4.1. Nahi dugun pertsona:

Pertsona askea eta arduratsua.

Pentsatzeko eta arrazontzeko gaitasuna duena.

Dinamikoa eta sortzailea.

Pertsona kritikoa, bidezkoa, eraikitzailea eta hausnartzen duena.

Lanetan eta ezarritako helburuak lortzeko saiatzen dena.

Pertsona irekia, komunikaziorako prest dagoena, elkarriketaren aldekoa, entzuten dakiena eta erantzuten baita ere.

Bere buruarekiko, besteenganako eta inguruarekiko begiramena azaltzen duena.

Bakezalea eta giza duintasunarekiko ezaguera duena

Parte hartu eta laguntzeko prest dagoena, giza errealitatearen aurrean sentibera dena.

Zuzena, bidezkoa eta justizia maite duena.



Euskal Herria, euskal baloreak eta euskal kulturarekin bat datorrena

Ebanjelioan inspiratutako giza eta erlijio baloreen baitan jokatzeko duena
Jesusen pertsona bere bizitza eredu gisa hartzen duena.

4.2. Indartu nahi ditugun ezaugarriak:

Lanetan eta ezarritako helburuak lortzeko saiatzen dena.
Pertsona kritikoa, bidezkoa, eraikitzailea eta hausnartzen duena.
Parte hartu eta laguntzeko prest dagoena, giza errealitatearen aurrean sentibera dena.
Bere buruarekiko, besteenganako eta inguruarekiko begiramena azaltzen duena.
Euskal Herria, euskal baloreak eta euskal kulturarekin bat datorrena
Ebanjelioan inspiratutako giza eta erlijio baloreen baitan jokatzeko duena

4.3. Konpetentzien mapa

IKASTEN IKASTEKO KONPETENTZIA		
DEFINIZIOA	ATALAK	ADIERAZLEAK
Bizitzak planteatzen dituen eskakizunei aurre egin ahal izateko, ezagutzak, jarrerak, balioak eta prozedurak ikasketen edota bizipenen eraginez barneratu.	Iturri desberdinetako informazioa era autonomoan bilatu	Iturri ezberdinetatik (besteengandik, liburuetatik bizipenetatik, teknologi berrietatik...) informazioa bere kabuz lortzen du.
		Galdera eta helburu egokiak planteatzen ditu.
		Informazioa bilatzeko bai iturri desberdinak(TIC, liburuak,) bai kodigo desberdinak (zenbaskikoak, grafikoak, kartografikoak...) ongi erabiltzen ditu.
	Informazioa desberdindu, sailkatu, antolatu eta era konstruktiboan bereganatu	Informazioa jaso, erregistratu, antolatu, sailkatu eta interpretatzen du.
		Testuinguru desberdinetako Informazioa era kritikoan interpretatzen du.
		Informazio desberdinetatik kasurako egoki-ena aukeratzen du.



		Informazioa/esperientzia berria aurrekoarekin erlazionatuz eta uztartuz eskema berriak sortzen ditu.
	Eremu anitzetan baliabideak modu eraginkorrean aplikatzeko gaitasuna azaldu	Hipotesiak eta erabaki egokiak hartzen ditu.
		Eskema berriak egoera berrietara aplikatzen ditu.
		Ekintza planifikatu, aurrera eraman eta baloratu egiten du.
		Eguneroko bizitzan egin behar diren kudeaketa lanak egiten ditu

KOMUNIKATZEKO KOMPETENTZIA		
DEFINIZIOA	ATALAK	ADIERAZLEAK
Ideiak, ezagutza eta sentimenduak era argi eta egoki batean azaltzeko eta ulertzeko ekitnza, dagokion egoerari egokituz hartzailearekin elkarrezagutza aberasteko	Egoera desberdinetan norberaren ideiak modu egituratu eta ulerkor batean adieraztea	Komunikazio egoeretan parte hartzen du.
		Ematen duen informazioa zentzuduna da
		Ideiak modu argi eta egoki batean azaltzen ditu.
		Aurkezpenak interesgarriak dira eta ondo prestatuta daude.
		Ideiak azaltzeko; adibideak, analogiak, metaforak eta abar erabiltzen ditu.
		Entzulegoa parte hartzera eta dialogora bultzatzen du.
		Ahozko eta ezahozko hizkuntza bat datoz
	Besteek azaldutako ideiak eta sentimenduekiko ulermena	Galderak ondo erantzuten ditu
		Komunikatu zaiona ulertu, kritikoki interpretatu eta betetzen du.
	Komunikazioa bide desberdinekiko egokitzena(egokipena)	Mezuak azaltzeko baliabide desberdinak erabiltzen ditu.
		Mezua egoera desberdinetara egokitzen du.
		Argumentuak egoera eta entzule desberdinetara egokitzen ditu.



Ikastola

	IKT-en erabilpen egokia azaltzen du.
	Hizkuntza berriekiko jakinmina azaltzen du.
	Inguruko egoeretara (contexto sociolinguísticos) moldatzen da

LAN OHITURAK			
DEFINIZIOA	ATALAK	ADIERAZLEAK	
Denbora eta baliabi-deak era autonomo eta iraunkorrean antolatzaren ekintza eguneroko lanak burutzeko	Denboraren antolaketa modu eraginkorrean.	Lan teknika ezberdinak ezagutzen ditu.	
		Agenda erabiltzen du.	
		Bere mugak eta gaitasunak ezagutzen ditu.	
	Baliabide ezberdinen ezagutza era eta lanaren baitan hauen erabilera .	Lanak egin	Iniziatiba agertzen du egoera ezberdinetan.
			Gai da ekintza bakoitza burutzeko egokiena den ikas-teknika aukeratzeko.
			Ikas teknikak erabiltzen ditu.
			Zalantzak galdetzen ditu.
			Jakinmina azaltzen du.
			Erabakiak hartzen ditu.
			Arretaz aritzen da lanean.
	Lanak egin	Eguneroko lanak egiten ditu.	
		Gela barruan jarritako denboran lanak bukatzen ditu.	
		Lanak epean aurkezten ditu.	
Lanen kalitatea zaintzen du eskatutako baldintzak kontutan hartuz.			

TALDE LANA			
DEFINIZIOA	ATALAK	ADIERAZLEAK	
Taldeen erantzunkizuna zuzen elkarbanatuz eta denon desberdintasunak onartuz eta integratuz, erabakiak hartu eta ekintzailea	Talde lanaren plangintza	Helburuak ezagutzen ditu.	
		Denbora errespetatzen du.	
		Arauek ezartzen ditu.	
		Dokumentoak lortzen ditu.	
			Pertsonak errespetatzen ditu.
			Txanda gordetzen du.
			Ideiak ondo botatzen ditu.



Ikastola

		Bere iritzia ematen du.
		Besteen iritzia entzuten du.
		Besteen ideiak errespetatzen ditu.
		Besteen proposamenak onartzen ditu.
		Besteen lana baloratzen du.
		Talde lanaren ondorioz betebeharrak
		Denborak errespetatzen ditu.

SAIATU ETA HOBETZE IZAERA		
DEFINIZIOA	ATALAK	ADIERAZLEAK
Eguneroko egoerak ezagutu, aztertu eta baloratu ondoren aurre egin bakarka nahiz taldean, bakoitzaren errealitatetik beste egoera hobe bat lortzeko egokienak diren urratsak ematearen ekintza	Bere egoera aztertu	Bere alderdi postibiboak ezagutzen ditu
		Eskura dituen baliabideak ezagutzen ditu
		Bere zailtasunez jabetzen da
	Hobetzeko prozesua antolatatu	Bere egoera ezagutzen du.
		Helburu erreal bat jartzen du.
		Planifikazioa egokia egiten du.
	Ekintza burutu	Jarritako urratsak betezen ditu.
		Emandako aholkuak betetzen ditu.
		Laguntza eskatzen du.
		Egoera hobe bat lortzen du.

KRISTAU KONPROMISOA		
DEFINIZIOA	ATALAK	ADIERAZLEAK
Ebanjelioaren ezagutzaren bitartez Jesusen irudira gerturatzearen ekintza, per-	Ebanjelioaren bitartez Jesusen irudia ezagutu	Jesusen bizitzako pasarte esanguratsuenak ezagutzen ditu.
		Jesusen jarraitzaile esanguratsuenak ezagutzen ditu.
		Aita Claretaren bizitza ezagutzen du.



		Gaur egungo egoeretan Jesusen irudia bereizten du.
Kristau baloreak ezagutu, bereizi eta praktikan jarri		Kristau baloreak ezagutzen ditu.
		Bere gauzak besteekin elkarbanatzen ditu.
		Egoera desberdinetan barkamena jarrera azaltzen du.
		Gehien behar dutenen aldekoa azaltzen da.
		Egizalea agertzen da.
		Pakezalea azaltzen da.
Fedearen adierazpena		Ospakizunetan parte hartzen du.
		Oratorioan parte hartzen du.
		Kanpaina ezberdinetan inplikazio pertsonala azaltzen du.

5. Hezkuntza Eredua

5.3. Metodologiaren oinarriak

Metodologiaren hautaketak ondorengo sostenguak izango ditu kontutan:

- Ikasle bakoitza bakarrik izango da, bakoitzaren prozesua, erritmoa, aukerak, (indibidualizazioa) eta nortasuna (pertsonalizazioa) lortuko ditu.
- Taldearen beharra suspertuko du: ez gara bakarrik bizi, taldean baizik, taldea hedatuz (sozializazioa).
- Komunikazioa, berdintasuna, harreman irekia, parte hartzearen bultzaitzailea: eta autoritarismo, diskriminazio eta dirigismoa saihestuko du (demokrazia).
- Pertsonak, gertaerak, gauzen balorazioa (baloreak).
- Ikasleen alderdi positiboa abiapuntutzat hartu.
- Esperientzia eta saiakera zutabetzat izan: esandoakoa biziz, praktikara eramanez, "ikasitakoaren" praktika izanez.
- Osotasuna: pertsonaren alderdi guztiak jasoko ditu.



- Jarrera kritikoa: gatazka eta kontraesanean ikasleak helarazten dituen.
- Malgug: pazientziaz irakasten duela.
- Autonomia: ikaslea, jarduera ororen protagonista eta eragilea izanik.
- Dinamikoa eta sortzailea.
- Esanguratsua: barrenetik kanpora doa, ikasleak dakienak du abiapuntu eta bere bizitzako beste dimensioekin erlazionatzen du.
- Integrala: ikaslearen jarrera eta jokabideak bilduko ditu, ez bakarrik ezagutza eta edukiak.
- Etengabeko ebaluazioa: irakasle, metodologia, emaitzak... baloratuko ditu.
- Ikasleak Jainkoagana hurbilduaraziko ditu (pastorala). Cf. Pastoral egitasmoa.

5.2. Ebaluazioa

- Mariaren Bihotza Ikastola gizartera gero eta irekiagoa izendatzen denez beharrezkoa du ebaluazioaren parte hartzea handitzea. Ebaluazioan Hezkuntza Komunitatea osatzen duten estamentu guztiek parte hartuko dute.
- Ebaluazioak hezkuntza esparru guztiak hartuko ditu, irakaskuntza-prozesuak, kudeaketa, funtzionamendua, helburuen lorpena, e.a., eta kalitatezko ezaugarriekin bat eginez, etengabe hobekuntza-planak sortuko ditu.
- Irakasleek, ikasleen ikaste-jardueraz gainera, irakaskuntza-prozesua eta berek egindako lana ebaluatuko dute.
- Ikasleen ebaluaziorako kontutan hartu beharrezkoa:
 - Ikaslearen ikaskuntza prozesuaren ebaluazio jarraia eta osoa izango da. HH eta LH-an arlo guztien multzoa kontutan izanik burutuko da eta DBH-an berriz, gaika bereiztuta.
 - Konpetentzietan ebaluatuko da.
 - Ebaluazio estrategia desberdinak erabiliko dira.
 - Prozedura eta teknika desberdinak erabiliko dira arlo/ikasgai bakoitzean.



6. Antolaketa

6.1. Hezkuntz komunitatea:

6.1.1 Entitate Titularra

- Kideen arteko harremanak girotzen ditu.
- Idearioaren printzipioak ezartzen ditu.
- Jarduera hezitzaile globala sustatzen du.
- Ondare misiolaria eta klaretarra ematen du hezkuntzan.
- Misio konpartitua aurrera eramateko ahalegina egiten du.
- Kudeaketa ardura guztiak bere gain hartzen ditu.

6.1.2 Ikasleak

- Hezkuntza Elkarteko kide giztiekiko gizabidezko jarrera eta harremanak azaldu. Errespetua eta entzulea guztiekiko.
- Aktiboa eta arduraduna izan eguneroko lanetan. Iniziatiba, parte hartze aktibo eta arduratsua, kreatiboa.
- Euskara eta euskal kulturarekiko jarrera positiboa azaldu / Euskaraz hitz egin.
- Ikastea, saiatzea eta lan egitea / Saiatze ohiturak bete.
- Pertsona moduan hezkuntza integralaren prozesuan arduratsu parte hartu.
- Gizarte berrirako prestakuntza lortu.

6.1.3 Irakasleak

- Hezitzailea: Heziketa prozesua planifikatu eta zuzendu, irakaskuntza lanak modu egokiz burutu.
- Etengabeko formazioaz arduratu.
- Familiekin harreman estuak mantendu: familia eta ikasleen ezagutza eta jarraipen zehatza. Ikasle eta familiekin harreman egokiak izan.
- Irakatsi, eguneratu (formazioa, lanak...) eta talde lanetan aritu.
- Ikasleak animatu eta orientatu.
- Idearioarekin bat etorri eta eguneroko lanean kontutuan izan (Zentroaren nortasuna).

6.1.4 A.Z.P. (Administrazio eta Zebitzuetako Pertsonala)

- Bakoitza bere arloan profesionala izatea. Dagozkien lanak modu egokiz aurrera atera.



- Zentroaren dinamizazioan parte hartu.
- Zentroaren nortasunarekin bat etorri eta eguneroko lanetan kontutan izan.
- Etengabeko formazioa. Formazioaz arduratu.
- Pertsonetikiko harrera hurbila.

6.1.5 Familiak

- Seme-alaben heziketaren arduradun nagusiak izanda, zentroarekin koordinatzen dira. Ikasleen lehen hezitzaile arduratsuak izan. Inplikazioa heziketan.
- Zentroaren nortasunarekiko koherentzia agertu. Idearioa ezagutu, onartu eta konpartitu.
- Euskarari garrantzia eman.
- Ikastolarekiko entzumen aktiboa, hau da, Ikastolak eta familiak bide paraleloak izatea (beretik joatea).
- Komunikazio egokia mantendu dagokion pausoak eta bideak jarraituz

6.2 Gehien indartu beharko genituzkeenak gure ikastolan

- Euskararen erabilera ikasleen aldetik / Euskara indartu / Euskara eta euskal kulturarekiko jarrera positiboa azaldu.
- Disziplina / Esfortzu ohiturak / Ikasketa, saiatzea eta lan egitea.
- Jarduera hezitzaile globala sustatu.
- Irakatsi, eguneratu eta talde lanetan aritu.
- Bakoitza bere arloan profesional izatea.
- Familia ikasleen lehen hezitzaile arduratsuak izan.
- Hezkuntza Elkarteko kide guztiekiko gizabidezko jarrera eta harremanak izan.
- Kanpoko ekintzak: koordinazioa.
- Gurasoen inplikazioa.

6.3. Harremanen giroa eta gure antolaketa propioa garatzen duten elementuei ematen diegun garrantzia

- Pertsona guztien etengabeko formakuntza, hezkuntza munduan eguneratua egon gaitezen Ikasketariko motibazioa eta Curriculumaren aplikazio zuzena eta egokia.
- Familien parte hartze zuzena ikasleen hezkuntzan.



- Eguneroko bizitzan koherentzia eta testigantza
- Fedegabe (urrunean) eta ahulenganako arreta eta laguntza berezia.
- Hezkuntza komunitatearen elkarbanatutako misioa (Mision compartida).

6.4 Sendotasunak eta ahultsunak gure antolaketan

6.4.1 Sendotasunak:

- Komunitate txikia izateak harremanak errazten ditu. Elkarren artean gertutik eta aspalditik ezagutzen dugu elkar. Estamentu desberdinen arteko koodinazioa ona bada ere, horretan jarraituko dugu.
- Ahulenganako eta urrunean daudenenganako ardura.
- Ikasteko motibazioan, eta eskola kurrikuluma zorrotz eta behar bezala ezartzeko garaian.
- Eragileen etengabeko formazioa.
- Misio konpartitua; elkarte hezitzailea.
- Ebangelioaren garrantzia.

6.4.2 Ahuleziak:

- Ikasleen motibazio falta.
- Ahulenganako eta urrenen daudenenganako ardura.
- Elkarte osoaren inplikazio falta.
- Ebanjelioa bizitzan ez gauzatzea.
- Errekurtso ekonomiko murrizak eta hainbat kasutan eskasak.

6.5 Gure eredu pedagogikoaren ezaugarriak

- Presentzia, egote eta begikotasunaren pedagogia.
- Jarrera, ohiturak, gaitasunak sortzen dituen pedagogia.
- Ekintzaile eta partehartzailea den pedagogia.



- Behar gehien dutenen aldeko pedagogia.
- Ikaslearen gaitasun guztiak garatzen dituen pedagogia.
- Hezkuntza komunitate osoaren pedagogia.
- Esperientziaren pedagogia (ikaslearen bizitza abiapuntu bezala)

6.6 Etengabeko formakuntza

Aurreko zenbait ataletan aipatzen den bezala (eginkizuna, ikusmira, baloreak) Hezkuntza Komunitatea osatzen duten pertsona guztien etengabeko formakuntza da gure helburu garrantzitsuenetakoa bat, hezitzaileak zenbait eta prestatuagoak eta jakintsuagoak izan, ikasleek emaitza hobea lortzen baitute arlo guztietan.

Bestalde, gaur egungo gizartea -ohiturak, praktikak, jakintzak- amaierarik gabeko aldaketan murgilduta dago. Kontutan izanik gure ikasleak gizarte horren partaide izateko hezitzen ditugula derri gorrezkoa dugu etengabeko aldaketa horren parte izatea eta horrek suposatzen duen prestakuntza jasotzeko prest egotea.

Horren baitan, proiektu desberdinen zehaztapenetatik biltzen diren beharrak kontutan harturik, Ikastolako Urteko Planak Hezkuntza Komunitateko estamentu desberdinentzat (irakasle, ez irakasle, guraso) prestakuntza plana jasoko du.

7 Ildo estrategikoak

7.4 Pastoral ildoak

Pastoralta, jasotzailearen egoera federeko desberdina denez maila desberdinetan garatzen da.

1º Atalase mailako pedagogia .

Maila honetan, munduan jarrera pasibo batetik beste kritiko eta ekintzaile batera pasatzean datza. Hiru atal kontuan izan behar ditugu:

Baloreen hezkuntza

Utopia edo itxaropenaren hezkuntza

Hausnarketa eta bilaketaren hezkuntza



2° Kultura eta fedearen arteko harremana.

Maila honetako helburuak izango dira: Norbere eta besteen kulturaren gizatasun baloreak aurkitu, erlijioak eta bereziki Kristautasunak kulturari egiten dizkion ekarpenak aurkitu.

Maila honeta bi jarduera beharrezkoak dira:

- **Kulturaren ebanjelizazioa:** espiritu eta erlijioso den dimentsioaren transmisioa, helmuga kristaua eta ebanjelikoa izanik.
- **Fedearen inculturazioa:** Munduko, gizakiaren eta historiaren kristau zentzuaren proposamena; ikaslearen bizi esperientzian kristau urratsen antzematea; Salbamen misterioaren berri ematea.

3° Sarbide osoa fedean.

Maila honetan, ikastolak Kritorengan bihurtzeko prozesua gailenduz, kristau komunitatean sarbidea eman eta Jainkoaren Erreinuaren aldeko bizi konpromezua hartuz, fedearen ospakizun eta otoitza eginez.

Pastoralta plan orokorrean zehaztua geldituko da ildo hau.

7.5 Hizkuntzaren ildo

Ikastolak euskara komunikazio eta aprendizai prozesuetarako lehen hizkuntza indartzeko konpromisoa hartu du. Honetarako hurrengo hastapenak kontutan izango ditu:

- Hizkuntza komunikazio tresna denez, pertsonen arteko elkarrekintza eta komunikazio positiboa gartzeko tresna izango da.
- Euskal Erkidegoko hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania dira, honengatik ikastolak benetazko elebiduntasuna lortzeko tinko egingo du lana.
- Mundu eta Europako beste herrialdeetara zabaltzearen konpromisoa izanik hirueleduntasuna indartzeko ardura izan.

Ikastolako Hizkuntza plan orokorrean zehaztua geldituko da ildo hau.

7.6 Aniztasuna trataeraren ildo

Aniztasuna gizakiengan aberastasun eta beste alde batetik atxikita dagoela onartuz, gure ahalegina zuzenduko dugu:

- . Prebentzioa



. Jarduerak zuzendu:

- o Egokitzapen curricular osoa edo arlokoa duten ikasleria.
- o Irakurketa eta idazketa, kalkulu edo aho edo idatz adierazpena zailtasunak edo eznahikotasunak dituen ikasleago.
- o Hizkuntza eta matematiketan oinarri falta duen ikasleria.
- o Lan ohitura eta ikas-tekniketan zailtasunak dituen ikasleria.
- o Motibazioa, arreta eta konzentrazioko zailtasunak dituen ikasleria.
- o Berdinen arteko edo helduekiko harremanetan zailtasunak dituen ikasleria.
- o Atzerriko ikasleria.

Aniztasun trataeraren plan orokorrean zehaztua geldituko da ildo hau.

7.7 Tutoretza ildo

Gure ikasleen ahalmen pertsonala, soziala, akademiko, bokazionala eta traszendentala garatzeko, kristau ikuspuntu eta klaretiar estiloaz, Hezkuntza komunitateak egingo duen jardueren bilduma jasotzen duen plana edo proiektua da.

Ikasleen hezkuntza-orientazioa etengabeko laguntza-prozesu sistematikoa da, hezkuntza-jarduerak bere barnean hartzen duelarik. Laguntza prozesu horrek balio behar du ikasleak bere proiektu pertsonal zein profesionalaren jabe izateko, horretarako behar dituen gaitasunak eraikiz.

Beraz, eskolan ikasleek oinarrizko gaitasun guztiak garatu behar dituzte.

Tutoretzako plan orokorrean zehaztua geldituko da ildo hau.

7.8 Harrera eta elkarbizitzaren ildo

Mariaren Bihotza Ikastolako Hezkuntza Komunitatearentzat, elkarbizitza positiboa, taldean aniztasuna kontutan izanez eta partaidetza, bai laguntasunaren sentimendu eta baloreak goratuz, hezkuntza komunitatean begirunea eta elkarriketa giroa eguneroko harremanetan erabili eta lantzen duena da.

Hezkuntza Komunitateko estamendu guztien artean arau garbi batzuk adostea eskatzen du eta erabakiekiko koherentziaz jokatzera.

Gatazken prebentzioak garrantzi handi du, eta gertatuz gero, erantzun egokia ematea, arazoa hantitu, luzatu eta estalia gera ez dadin.

Hezkuntza Komunitatearen elkarbizitza egoera dinamikoa eta aldakorra da eta etengabeko jarraipen bat eskatzen du.



Harrera eta elkarbizitzaren plan orokorrean zehaztua geldituko da ildo hau.

8. Hezkuntza Proiektu honen aplikazioa, jarraipena eta ebaluaketa

Entitate Titularrari dagokio Mariaren Bihotza Ikastolako Hezkuntza Proiektua egitea eta onartzea.

Prozesu honetan, Hezkuntza Komunitateko estamentu guztien proposamenak entzun eta erantzungo ditu Entitate Titularrak.

Hortaz gain, Eskola Kontseiluari dokumentua aurkeztuko dio Elkarbanatutako Misioaren filosofia jarraituz.

Hezkuntza Komunitateak eta Entitate Titularrak onartutako dokumentu hau Dokumentu Publiko bihurtuko da, eta Proiektu Curricularra zein Gelako Programazioak egiteko garaian kontutan izango da.

Hezkuntza Komunitatea osatzen dugun guztiok Hezkuntza Proiektu hau onartzen dugu eta bertan azaltzen den guztia betetzeko konpromezua hartzen dugu.

Hezkuntza Proiektu honek honako dokumentu hauek ditu atxikituta:

- Pastoraliza Plana
- Hezkuntza Plana
- Aniztasunaren tratamenduraren plana
- Harrera eta elkarbizitzako Plana

Hezkuntza Proiektuaren ebaluaketa eta berrikusketa Entitate Titularrak hala eskatzen duenean egingo da.